

## KONTAKIZUN-SARIKETA

### OINARRIAK

- 1.- Nahi duen orok parte har dezake, adin zein herritartasunari erreparatu gabe.
- 2.- Hizkuntza (gaztelania edo euskara).-
- 3.- 6 sari egongo dira (3 sari gaztelaniaz eta 3 sari euskaraz):
  - \* 1. saria: Lehen Hezkuntza (4, 5 eta 6. mailak). 50 €
  - \*1. saria: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) 80 €.
  - \*1. saria Helduak: 120 €
- 4.- Egile bakoitzak lan bakarra entregatu ahaliko du; jatorrizkoa izango da eta aurretik saritu gabea (ez du marrazkirik izango, ezta argazkirik ere). **ITXITAKO BI GUTUN-AZAL atxikiko dira (horietako bakoitzaren kanpoaldean KONTAKIZUNAREN IZENBURUA ETA EZIZENA IDATZI beharko da)**
  - A gutun-azala: kontakizuna (**nahitaez zehaztu beharko da zein mailalara aurkeztuko den**).
  - B gutun-azala: egilearen NANaren kopia, izena, bi abizen, helbidea, helbide elektronikoa eta harremanetarako telefono-zenbakia; hala dagokionean, egilearen literatura ibilbidea
- 5.- Kontakizunen gutxienerako luzera (orrialde oso bat orri bat izango da): a) 1 orri (*Lehen Hezkuntza*), b) 2 orri (*Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza*) eta c) 4 orri gutxienez eta 8 orri gehienez (*Helduak*). Tamaina DIN A-4, tarte bikoitza (1,5 gehienez), hizki mota Times New Roman 12. Orrialdeak zenbakitu beharko dira (titulua ez da orrialdetzat hartuko).
- 6.- **Lana ebaluatzeko gutxienerako baldintzak:** epaimahaiak ez ditu ebaluatuko oinarrietako 1-5 ataletan zehaztutako baldintzak betetzen ez dituzten lanak.
- 7.- Sariketan parte hartzeak esan nahi du oinarri guztiak onartzen direla, baita erabakiak eta epaimahaiak emandako epaia ere. Epaimahaiak hartutako erabakia apelaezina izango da, eta epaimahaiak saria eman gabe utzi ahaliko du.
- 8.- Udalak saritutako lanen egile-eskubideak izango ditu, baita erreproduzio- eta erabilera-eskubideak ere.
- 9.- Epaimahaia hezkuntza eta kulturarekin lotutako pertsonak osatuko dute.
- 10.- Saritu ez diren lanak epaimahaiak epaia eman eta 15 lanegun pasatutakoan bueltatuko dira.
- 11.- Lanak aurkezteko epea 2018ko azaroaren 30ean amaituko da, 14:00etan.  
***Era berean, dokumentazioa udal-bulegoen ordutegian, Oyón/Oiongo Udalera postaz (Plaza Nagusia 5. Zk.-01320, Oyón/Oion, Araba) eta webgunearen bitartez (<http://www.ayuntamientodeoyon.com>) bidali ahal izango da. Edonola ere, dokumentazioak 2018ko azaroaren 30ean egon beharko du udal-bulegoetan. Parte-hartzaileen ardura izango da dokumentazioa oinarrietan zehaztutako epe barruan entregatzea. Jatorrizko dokumentazioa entregatzeko data eta ordu horretatik kanpo jasotzen den dokumentazioa ez da onartuko.***
- 12.- Sari-banaketa 2019ko urtarrilaren 20an egingo da, 13:00etara arte, udaletxean.